

BALEIKE

AGIRRE ANIAK

**XISTERA
OSATZEN DUTEN
ZUMEAK**



ZENBAKI HONEKIN BATERA
+ UDAKO GUKA
+ IKUSBERA



ENDAÑETAK
ez du saldu
bakarrik egiten,
arreta ere
ematen du

www.endañetazumaiia.com

Erribera, 8 · 943-86 16 94 · 943-86 21 47

TiEN21



Idoia

ARDOTEGIA

Julio Beobide, 2

943-57 49 86



BALEIKE 322

2022-UZTAILA

AZALEKO ARGAZKIAREN EGILEA:
ARNAITZ RUBIO APREA



Aurkibidea

- 4 **Hitz tantak** Onintza Lete Arrieta
Melanie Gonzalez, Nara Urbieta eta Ane Zalla
- 6 **Hainbat aburu** Peru Tolosa
Badator Euskaraldia
- 7 **Errematea** Jose Castillo
Eskasiaz
- 9 **Elkarrizketa** Amaia Urbieta Arruti
Arantza Aizpurua: "Anaia ez da gure familiakoa soilik, herriarena ere bada"
- 15 **Erreportajea** Jabi Gonzalez Toston
Pasio bereko hirukotea
- 20 **Erretratua** Maria Maya Manterola
Silvia Alvarez, beilatokiko harrera arduraduna eta Albia Gipuzkoako bultzatzailea
- 25 **Heziketa** Mireia Centeno
- Haurraren autoestimua zaintzen*
- 26 **Plazan bazan**
- 28 **Izpiak eta hizkiak** Arnaitz Rubio
Apraia
Jexux Iribar 'Olalde'
- 30 **Gizartea** Juan Luis Romatet
64 koadroko hezkuntza proiektua
- 35 **Kultura** Distira Argazki Elkarte
Etxe barruko lanaren emaitza
- 40 **Kultura** Maria Maya Manterola
Aldarri bat zalantzaren alde
- 43 **Agenda**
- 44 **Literatura** Antton Peñalba
Sanroketarako, etxean
- 45 **Nire txanda** Irati Osa Irureta
Ametsetan
- 46 **Azkena** Juan Luis Romatet
Reading

BALEIKE



Argitaratzailea

Urolako Komunikazio Taldea
Koop. Elk.
Soreasu 1. 20730
AZPEITIA
943-86 15 45
aldizkaria@baleike.eus
www.baleike.eus

Zuzendaria

Juan Luis Romatet
jlromatet@ukt.eus
Erredaktore taldea
Maria Maya Manterola
Onintza Lete Arrieta
Amaia Urbieta Arruti
Jabi Gonzalez Toston

Argazkilaria

Arnaitz Rubio Aprea
Diseinu arduraduna
Ane Azkue
Hizkuntza arduraduna
Imanol Azkue Ibarbia

Publizitate arduraduna

Felix Aizpurua
faizpurua@ukt.eus
Administrazio arduraduna
Uxua Ostolaza
uostolaza@ukt.eus

Inprimategia

Antza Inprimategia
(Lasarte-Oria)
Lege Gordailua:
SS-405/94
ISSN: 1136-8594
Tirada: 1.000 ale



Gipuzkoako Foru Aldundia

Zumaiako
Udala



Melanie Gonzalez, Nara Urbietta eta Ane Zalla

TESTUA: ONINTZA LETE ARRIETA

ARGAZKIA: UTZITAKOA

Maiatzean Kataluniako ORBE dantza lehiaketako sari nagusia eskuratu zuen Zarauzko BZ dantza eskolako talde amateur batek: The Redys taldeak.

Hamar lagun dira –Nerea Saldias irakaslea barne– eta horietako hiru zumaiarrak dira: Melanie Gonzalez (Zumaia, 2004), Nara Urbietta (Zumaia, 2003) eta Ane Zalla (Zumaia, 2004). Udan atseden hartu eta irailetik aurrera koreografia berri bati heltzeko irrikaz daude, berriz lehiatzeko grinatsu.

Nola iritsi zarete dantza munduan lehiatzera?

Nara Urbietta: Ane eta biok 4-5 urterekin hasi ginen dantzan herrian bertan.

Ane Zalla: Bai, Celinerekin ibili gara beti, baina duela hiru urte erabaki genuen dantzan gehiago sakontzea, eta akademia handiago batera joan ginen, Zarauzko BZ dantza eskolara.

Melanie Gonzalez: Ni orain bi urte hasi nintzen. Surfean aritzen nintzen, baina osasun arazoengatik utzi egin behar izan nuen momentu batean, eta Anek eta Narak animatu ninduten dantza probatzera.

Nolakoa izan zen lehiaketa?

Urbietta: Goiz bateko txapelketa izan zen. Talde bakoitzak koreografia bat egin zuen eta bakoitzak bere kategorian jaso zuen saria.

Gonzalez: Gu amateurrek gara, ez gara profesionalak, astean ordubete inguru egiten dugulako dantza. Burgosen (Espainia) amateur mailan gelditu ginen aurrenak, baina Tarragonan (Herrialde Katalunak) denak nahastuta aritu ginen, eta sari nagusia irabazi genuen.

Urbietta: Batere esperantzarik ez geneukan, eta gure izena esan zutenean... Burgoskoa ez genuen espero, eta hau gutxiago.

Zalla: Maila ona zegoen txapelketan. Igartzen zen taldeek beren orduak sartzen zituztela dantzan.

Eta zerk uste duzue eman zizuetela garaipena zuei?

Gonzalez: Pausoak, janzkera, aurpegiara, koordinazioa eta abar hartzen dira kontuan, baina

guk uste dugu garaipenaren parte handi bat taldean daukagun konexioak eragin duela.

Urbietta: Tope elkartuta gaude denok denok, eta askotan esan digute hori nabaritu egiten zaigula oholta gainean.

Zalla: Dena den, Burgosko lehiatik Tarragonakora sekulako garapena dago gure lanean.

Gonzalez: Lagunak gara, eta askotan elkartzen gara afaltzeko, parranda egiteko... Parranda onenak, zalantzarik gabe, taldearekin izaten dira.

Zalla eta Urbietta: Bai, bai!

Atentzioa emango duzue ba parrandan dantzan...

Urbietta: Eskolan eman dugun abestiren bat jartzen dutenean denok hasten gara dantzan, eta jendeak galdetzen digu, bai, ea dantzariak garen.

Dantza eskolan astean behin elkartzen zarete, baina etxean jardungo duzue, ala?

Gonzalez: Bai, irakasleak esaten digu etxean entseatzeko, eta saiatzeko.

Zalla: Kuadrilla berekoak garen, askotan kalean musika jarri eta lagunei egiten diegu dantza.

Urbietta: Ia-ia bizitza dantzan, kar-kar.

Hiru minutuko koreografia zen zuena. Oro har, jendea konturatzen al da zer esfortzu fisiko eskatzen duen?

Gonzalez: Inolaz ere ez. Askotan lagunei esan eskola oso gogorra izan dugula, eta ez digute sinisten.

Zalla: Gorputz osoa lantzen dugu, eta beroketak oso gogorrak izaten dira.

Urbietta: Nerea irakaslea pixka bat umore txarrez baldin badago, are gogorragoak!

Irakaslea aipatuta, hura ere pozik egongo da, ezta?

Gonzalez: Bai, harro dago, baita gu ere. Asko sinistu du gudan. Gainera, Nereak ez zuen koreografia hau sortu lehiatzeko. Gero etorri da aukera hori.

Esan: zenbat bider ikusi duzue zeuen burua dantzan Tarragonako txapelketan?

Zalla: Ezin da kontatu, pila bat bider! Gehiegitan!

Gonzalez: Gosaritan, afaritan... Askotan!

Urbietta: Irakasleak audio-mezua bidali digu lehen, esanez goizero kafea hartu aurretik ikusten duela gure izena esan zuten unearen bideoa. ■■■





Badator Euskaraldia

Hirugarren Euskaraldia izango da aurtengoa, azaroaren 18tik abenduaren 2a bitartean iraungo duena. 2018an izandako harrera onaren ondoren, bigarren Euskaraldia, 2020. urtekoa, pandemia egoerak baldintzatu zuen zeharo. Zaila izan zen harreman sozialik gabeko gizartearen ariketa sozial bat egitea; hala ere, aurrera egin genuen. Hirugarren edizio hau, berriz, hasierako urte hartan lortutako giroa itzultzeko eta euskara "erdigunean" jartzeko urtea izango da, Korrikaren martxa hartu eta lekukoa hartzekoa.

Azkenaldian asko erabiltzen da euskara –edo beste zerbait– “erdigunean” jartzearen ideia; kasu eta egoera batzuetan, gainera, ez da garbi ulertzen horrekin zer esan nahi den.

Egunerokotasunean ikusten ditugun medio eta iragarkietan agertzea, ikusgarritasuna ematea, iruditeria handi bat izan edota eslogan politak erabilia aldarrikapen bat egitea. Hori estrategia da, kanpaina, publizitatea edo marketina.

Euskaraldian dinamikaren eta txaparen funtzioa euskarari ikusgarritasuna ematea da, noski, baina ariketa edo jolas modura proposatutako bi rolak (*Ahobizi* eta *Belarriprest*) identifikatzeko eta ariketa baten bidez hizkuntza ohiturak aldatzeko. *Ahobizi* rola aukeratzen duenak, jakin behar du lehen hitza euskaraz egingo duela eta ahal den bitartean elkarrizketak euskaraz egiteko konpromisoa hartzen duela. Eta *Belarriprest* rola aukeratzen duenak, berriz, harremanak

**DINAMIKA ONGI
BETETZEA DA
HELBURU NAGUSIA ETA
HIZKUNTZA OHITURAK
ALDATZEA**

HAUXE BAI JENEROA!



ERREMATEA



JOSE CASTILLO

Eskasiaz

Petrolioaren eta gasaren prezioak maximo historikotan daude. Datorkigun negua gordina izango da; erregaiari elikagaien prezioen igotze nabarmenak segi die. Badirudi, gainera, egoera hau asko luzatuko dela, inflazioa sortu duten sakoneko kausak azken hamarkadan kapitalismoa jasaten ari den krisi sakonaren ondorio baitira, eta ez soilik Ukrainako gerraren ondorio. Baliteke, negu honetan, familia askok berogailua jartzeko arazo latzak izatea. Batetik, inflazioak jada langile guztien hilabete bateko soldata adinako eros ahalmena jan duelako, eta, bestetik, ez dagoelako gas nahiko eskaria asetzeko eta Europako Batasuna bera jada hasi da errazionamenduaz hitz egiten.

Mendebalde kapitalista oparotasunaren amets hezean ito da eta inork imajinatzen ez zituen egoerak bueltan dira. Hegoalde globalean edota mundu "azpigaratuan" egoera arras okerragoa da. Nazio Batuen elikagai programaren datuen arabera, 2016. urtetik egun arte gose arrisku larrian dauden pertsonen kopurua %31 igo da. Beraz, gerra ez da guztiaren ondorio, eta bai kausalitate bat. Sahara azpiko Afrikako herrialde ugari jada aitortu dute elikadura larrialdi egoeran daudela. 2022. urtea, gosez hilko den jendeaz ari gara. ■



euskaraz egiteko prest egotea adierazten duela, eta ahal duen heinean elkarrizketak euskaraz egiten saiatuko dela.

Gure eguneroko bizitzan euskara txertatzea, erabilera sustatzea, egoera eta harreman ezberdinen aurrean euskara erabiltzea eta horretarako moldatzea. Elkarrizketa lehen hitza beti euskaraz egitea eta elkarrizketa euskaraz egitera bideratzea da bilatzen dena.

Ez da hain garrantzitsua zenbat jende emango duen izena edo zenbat txapa banatuko diren, berdin da hamabost egunez Euskaraldia euskararen aldarrikapen erakusleho bihurtzea ere. Dinamika ongi betetzea da ariketa honen helburu nagusia, eta hamabost egun horietan hizkuntza ohiturak aldatzea gizartearen gune guztietan. ■



PUBLIZITATEA



Arrain eta mariskoak

Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak

7 MARES izotzuak

Zuloaga plaza, 1
tel. 943-86 23 09



diseinua inprimatzea

Alai 8. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
tel: 943-14 31 22 ■ fax: 943-14 31 20
a3@a3zumaia.com ■ www.a3zumaia.com

f t i



Agurtzane Okindegia

Erribera 2 • 943-86 21 52



Aita Mari JATEXEA

☎ 679 10 31 67

📍 Juan de Zigarán, 1
Zumaia

@aitamarijatexea@gmail.com

f t i



AIZPURUA RUDENDA

Aita-Mari auzategia, 17
tel. 943-86 15 69



AL-ANON

Alkoholikoen senide eta lagunen elkartera

Tel. 650 26 59 63

Ordutegia: asteazkenetan, 20:00-22:00
larunbatetan, 19:00-21:00



ALBERDI dekorazioa

- Eskaiola
- Pladur-a

☎ 696 72 61 88
943-14 32 61



Amama taberna

tel. 943-57 46 51
amamataberna@gmail.com


Ortega y Gasset kalea 4. Zumaia (Gipuzkoa)



Ane Ibarretxe · Horiz Klinika

Árdantzabide, 3 behea • Zumaia

☎ 943-54 35 70 • 📠 688 73 38 56



OKINDEGIAR Sirkupe

Nagusia, 2 - tel. 943-86 15 21
ZUMAIA

OGI-EDER



ATARI TABERNA

Pintxo bereziak eta olagarro-zopa

Árdantzabide, 16 - Tel. 943-50 91 69



Bosch Car Service

Autos Zumaia

Gasolina injezioa Diesel injezioa Elektrizitatea/Elektronika Piztea

Balaztak, ABS, ESP Mantentze mekanika Motorraren mekanika Hozte sistemak

Urola plaza 3-5 Tel. 943-86 14 85
autoszumaia@bosch-bcs.com



AXA

943-53 03 97
688 71 26 21

Kantauri 2, behea
aseguruak.zumaia@agencia.axa.es



finés, frantses, euskara, ingeles, espagnol, katalanar, suomi, basc, gaztelu, lemos, frantses, anglis, katalan, frantses, castellan, frantses, ingeles, basc, katalan

bakun

ITZULPEN ETA ARGITALPEN ZERBITZUAK S.L

San Isidro, 25 tel./faxa 943-14 83 06
20749 Arroa bakun@euskalnet.net



Basadi albaitaritza

Ribaitoria Ikaki Garmendia

Basadi, 7, behea - tel. 943-14 33 10
veterinaria@basadiclinivet.com
www.basadiclinivet.com

Golez: 11-13 / Arratsakoz: 16-19:30 / Astelehen goizean eta larunbatetan itxia

Larriakletarako: 605 72 87 07 Elbez etxeko zerbitzua



BASUSTA erretegia · asador

José Blázquez

Palxita Ekezarreta, 25 Tel.: 943-86 20 73
20750 Zumaia (Gipuzkoa) 943-86 04 38
asadorbasusta@hotmail.com



EDU ZUMAIKO OPTIKA

Txomin Agirre kalea, 6
20750 Zumaia, Gipuzkoa
943-14 30 57

www.eduoptika.com

RPS 18/16

"Anaiia ez da gure familiakoa soilik, herriarena ere bada"

ARANTZA AIZPURUA

"Joan hadi etxera, esaiok amari laster joango naizela". Horiek izan ziren Jesus Aizpurua Zinkunegik Zumaiatik alde egin aurretik 7 urteko anaiia Inaziori esan zizkion azken hitzak. Ondoren, moillako itsasontzi batean sartzen eta alde egiten ikusi zuen Inaziok, beste hainbat lagunekin batera. 15 urte zituen Aizpurua orduan, zortzi anai-arrebetan zaharrenak, eta galdara tailer bat jarri berria zuen Zumaian, aitarekin batera. 1936an gerra etorri zen, ordea, eta giroa gaizto jartzen ari zela ikusita, herritik alde egin eta gudari sartu zen. "Garai hartan oso kontzientziatuta zegoen jendea, gizondugue egiten ziren sasoi baina lehen", dio Arantza Aizpurua, Jesusen arreba gazteenak.

Testua eta argazkiak: **Amaia Urbieta Arruti.**

Hiru urte baino ez zituen Arantzak urte beltz hartan, eta anaiiaz ezer gutxi gogoratzen badu ere, haren hutsunearen zama oso presente izan du bizitza osoan zehar, familiak ez baitzuen sekula jakin bizirik jarraitzen zuen ala ez. "Horrenbestetan entzun nion gure amari, horrenbeste sufritu zuen... dena geratu zait buruan", dio. Ezagun du hori haren Menagaraiko (Araba) etxeak, anaiaren argazkiak eta garai zaharretako hamaika oroigarri baitauzka apain ipinita hormetan. Bizitzaren errebueltek Zumaiatik 100 kilometrora eramanez dute bizitzera Arantza, baina jaioterriak pisu handia du harentzat.

Duela urte batzuk anaiaren berri eduki ahal izateko zenbait hari mugitzen hasi zen, eta 85 urte haren arrastorik eduki gabe igaro ostean, jakin du Jesus 17 urte betetzeko zituela hil zela, Tarragonako (Herrialde Katalanak) ospitale militar batean, tifus sukarrak jota. Haren hezurak, berriz, Vallfogona de Riucorb udalerriko hobi komun batean daude.

Noiz izan zenuten anaiaren berri azkenekoz?

Gure amak aipatzen zuen baten batek esan ziola behin Jesusek hitz egin zuela irrati bidez. Ez omen zuen bere izen-abizenik aipatu, baina esan omen zuen Gipuzkoako kostako herri bateko semea zela, kanporatze gehien izan ziren herrikoa. Eta Zumaia zen hori. Gure amak esan zuen: "Hori Jesus da". Irratian fronteko berri ematen zuten bakoitzean, amak Jesus ikusten zuen toki guztietan.

Gerra garaian Zumaiatik kanporatutako beste familia batek, Aizpurua abizenekoak eta zortzi senide ziren haiek ere, topatu zuen Jesus Katalunian. Familia hura lehenengo Bilbora joan zen, gero Santanderera, Asturiasera... eta, azkenean, Kataluniara joan zen, Frantziara pasatzeko asmotan. Bertan topatu omen zuen Jesus, eta harekin geratu omen ziren hurrengo egunerako, elkarrekin muga pasatzeko. Baina Jesus ez omen zen agertu. Gregoria Aizpurua Torreagakoak, familia hartakoak, kontatu zigun guri hori.

Zuek ere kanporatu zintuzteten?



Txukun gordeta dauzka zumaiarrak anaiaren bilaketari buruzko dokumentu guztiak.

"GARAI HARTAN KONTZIENTZIATUTA ZEGOEN JENDEA, GIZONDU EGITEN ZIREN ORDUA BAINO LEHEN"

"IRRATIAN FRENTEKO BERRI EMATEN ZUTENEAN, AMAK JESUS IKUSTEN ZUEN TOKI GUZTIETAN"

Gu ginen *los apestados*, kutsatuta bageunde bezala tratatzen gintuzten. Gerra hasi zenean aitak alde egin zuen lehenengo, behartuta. Berak Zumaian nahi zuen ezkutatu, esaten zuen bi edo hiru egunean pasatuko zela dena, baina amak esaten zion ezetz, alde egin behar zuela, eta Bilbora joan zen. Bilbotik ez zen mugitu, ez zuen nahi Euskal Herritik atera. Aitak ez zekien bere semea zer egitera zihoan, baina handik egun batzuetara joan zen Jesus.


Gu ginen *rojos separatistas*. Politika pil-pilean zegoen, eta denek zekiten nor zen nor. Gure aitak eta anaiak alde egin zutenez, gu ere kanporatzekotan egon ziren, baina azkenean geratzea lortu genuen, etxetik asko ez aldentzeko baldintzarekin. Telesforoneko etxean bizi ginen, Goiko plazan, eta Arritokieta aldera joaten ginen, justu-justu. Galtzaileak izan ginen, eta oso gaizki pasatu genuen. Begien aurrean ezinikusia eta gorrotoa. Horixe bizi izan dugu, hutsaren hurrengoak ginen eta.

Jesusen ondorengo seme zaharrena, hamaika urterekin, gure aita zen. Eta alaba zaharrena,





Etxeko apaletan, familiako gainontzekoenekin batera, anaiaren argazkiak ditu Aizpuruak.



Jesus Aizpuruaren heriotz agiria.

bederatzi urterekin, gure ama. Gure Maritxu eta gure Tomas, 9 eta 11 urterekin, ezpalak kentzera joaten ziren Kerejetarenera [ontziola], baita Getariara antxoak garbitzera ere, umeen eskuek hobeto maneiatzen zituztelako.

Bilbora joan zenean, han lanean geratu zen aita, berehala ezin zelako etorri Zumaiara. Lana topatu zuen, eta amarekin joan ginen gu aurrerago. Manueltxo eta biok, bi txikiak, lehenengo, eta gainontzeko anai-arrebak aurrerago, ahal izan zutenean. Atxuriko trenean joan ginen, eta oraindik gogoratzen dut nolako estutua eman zidan aitak. Cortes kalearen inguruan pasatu genuen gaua, eta oroitzen naiz zakuak zeudela leihoetan, gortinen lekuan, oraindik gerra bukatzeko zegoelako.

Aita eta ama errietan hasten ziren. Hala esaten zion amak aitari: "Hara, Manuel, benetan esaten dizut, Franco zerri hori moroek jan izan balute Afrikan egon zenean, zuk eta nik ez genuen pasatuko hau guztia". "Arrazoi duzu, Isidora", esaten zion aitak.

Amorrua ematen dio Aizpuruari garai hura oroitzeko Zumaian duela bost urte egin zen antzerkiak. Ez du bere begiz ikusi, baina kontatu diote nola egin zen 2017an kanporatzeen inguruko antzerkia, garai hartako arrokekin jantzita eta abar. "Hori ez. Nik arrazoitu nahi dut, eta jakin dadila zer gertatu zen. Umiliazioak gertatu ziren, gose asko pasatu zen, gaixotasunak, jende asko hil zen, eta zigortuta egon ginen urte luzez", dio amorruz.

Noiz hasi zinen anaiaren arrastoari jarraika?

Urte batean Iñaki Egaña historialariarekin [Euskal Memoria fundazioko presidentearekin] hitz egin nuen gure anaiak Durangoko Azokan, eta hark animatu ninduen Aranzadirekin harremanetan jartzera. 2008an bidali nien lehen gutuna Aranzadikoei nik nekiena azaltzen. Erantzuna 2011n iritsi zitzaidan, eta jartzen zuen ez zutela gure anaiaren arrastorik topatu. Nik berak Bartzelonatik bidali zigun argazki hau bidali nien [Jesus lagun gudari batekin agertzen da argazkian], banekien anaia Katalunian egon zela, eta bertako ospitaleetako informea bidali zizkidaten Aranzadikoei. Nik esandakoari jarraika, ospitale guztietako erreferentziak atera zituzten, lan txukuna egin zuten. Baina izan nuen lehenengo notizia zen ez zutela bilatu.

Hurrengo pausoa Gogorarekin harremanetan jartzea izan zen, baina ez dakit zenbat urtean ez nuen haien berririk izan. Iaz, ordea, Lourdes ilobak jakinarazi zidan Europa Presse publikatu zuen desagertuen zerrenda batean agertu zela Jesus Aizpuru. Ondo akordatzen naiz egun hartaz. Ostirala zen, shock batean geratu nintzen. Gogorakoei deitu nien astelehen hartan zergatik ez ninduten ohartarazi jakiteko, eta esan zidaten paper asko falta zirela, eta itxaroten ari zirela niri

zerbait esan aurretik. Ni oso urduri nengoen, ezin nuen itxaron, eta handik gutxira bidali zizkidaten paperak Gogorakoek.

Kontu handiz, txukun-txukun gordeta dauzka Aizpuruak anaiaren bilaketarekin zerikusia duten paper eta dokumentu guztiak. Horien artean daude haren eskela eta heriotza ziurtagiria, baita soldadu zebilela jasotzen zuen nomina ere, sinadura eta guzti. "Horrek egiaztatzen du gudari ibili zela, kobratu zuela gudaritza". Dokumentuaren arabera, 150 pezeta jasotzen zituen hamabostean behin. "Garai hartan asko zen hori", dio Arantzak. Urte hauetan guztietan ez du anaiaren arrastorik ez berririk izan zumaiarrak. "Ez dirurik, ez txaketarik, ezta gerrikorik ere", dio minduta. "Heriotza ziurtagiria epaitegi batean zegoen. Eta ez diote inoiz inori ezer esan! Krudela izan da hau, oso krudela". Heriotza ziurtagiria da dokumenturik baliotsuena Arantzarentzat. Honela dio: Jesus Aizpuru Zinkunegi, 17 urtekoa, Vallfogona de Riucorbeko ospitale militarrean hil zen, tifus sukarrak jota. Ekainaren 3an hil zen, eta bost egunera beteko zituen 17 urte.

Zer urrats egin zenuen gero?

Ez nekien nori eskatu laguntza. Daukadan urte pilarekin, gero eta ahulago nago, eta hau guztia egiteko ez nekien norengana jo. Nola egin? Memoria Democratica de Catalunya erakundearekin jarri nintzen harremanetan, jakiteko ea nola atera daitezkeen anaiaren hezurak hobiratuta dagoen tokitik.

Gogorakoek esan zidaten 150 gorpu zeudela anaiarekin batera. Esan zidaten ezin zela atera,



ASESORIA ARIN

- Abokatua
- Kontabilitateak, gestoria, zergak eta laborala
- Inmobiliaria gestioa
- Komunitate administrazioa

Gesalaga kalea, 22 behea ▪ ZESTOA
Tel./Fax-a: 943-89 70 99 ▪ asesoriarin@asesoriarin.com

Pasio bereko hirukotea

Muguerza eta Osa Goikoetxea anaiak zesta-puntan aurretik zabaldutako bidetik doaz orain Agirre anaiak. Cosme, Eduardo eta Gonzalo Agirrek badakite dagoeneko pilota modalitate honetan txapelak janztea zer den, eta dituzten helburuen inguruan hitz egin diote *BALEIKE*ri.

Indartsu sartu zen xistera Agirre de Jesus sendiaren etxean. Cosme (Zumaia, 1997) anaia zaharrena izan zen erreminta lehendabizikoz hartu zuena eta haren ereduari jarraitu zioten ondoren Eduardok eta Gonzalok (Zumaia, 2000 eta 2005). Hiru anaien aurretik ez da puntistarik izan etxean, aita futbolaria zen, eta amari erabat ezezaguna zitzaion kirola.

Nolanahi ere, xisterarekin zaletu zen lehengoa ez zen Cosme izan. Berak futboleant aritu nahi zuen hasieran, baina kuadrillako beste hainbat lagunekin batera zesta puntan hasi zen eta jarraitu egin du.

Eduardok, erdikoak, zuen garbien puntista izan nahi zuela; baita anaia nagusia kirola egiten hasi aurretik ere: "Umetan Odietako frontoi zaharrera sartu nintzen behin eta zesta puntako entrenamendu batekin egin nuen topo. Liluratuta geratu nintzen, zerbait berria zen niretzat, ez zuen loturarik ikusi eta egitera ohituta nengoen futbola edo eskubaloiarekin. Momentu horretatik bertatik izan nuen argi hori zela egin nahi nuen kirola".

Gonzalok oraindik ez du behin betiko erabakia hartu. Futbolarekin uztartzen du xistera, baina badaki iritsiko zaiola zirt edo zart egiteko unea. Horregatik, dagoeneko hasi da hausnarketa egiten: "Uste dut nik ere zestaren aldeko apustua egingo dudala, etorkizun oparagoa ikusten dut, futbolari baino dohain handiagoa dut puntista gisa".

Testua: **Jabi Gonzalez Toston**. Argazkiak: **Arnaitz Rubio Aprea**.



Agirre anaiak Aitzuri frontoian.

Xisterarekiko zaletasunaz gain, kantxako postua ere partekatzen dute agirretarrek: hirurak aurrelariak dira. Ondorioz, ohikoagoa da elkarren aurka jokatu behar izatea elkarrekin bikotea osatuta baino. Edonola ere, azken hori ere egin dute inoiz. Horri dagokionez, Eduardo da bi anaiekin aritu den bakarra; hori bai, bera aurrelari beti: "Cosme eta Gonzalo moldatzen dira atzean jokatu behar badute; ni, ordea ez. Aurrelari petoa naiz".

Esan bezala, aurrez aurre gehiago aritu dira elkarrekin baino, eta ama omen da egoera deseroseen bizi duena: "Aurkari garenean ez da partida ikustera joaten. Urduri jartzen da ez duelako nahi semeetako baten alde jarri", azaldu dute Cosmek eta Gonzalok. Eurek, aldiz, lasaitasunez hartzen dute elkarren aurka jokatu behar hori. Hala ere, aitortu dute partida amaitutakoan irabazleak beti zirikatzen duela apur bat galtzailea.

Alde horretatik, elkarren artekoa pike sanoa dela diote; baita gainerako aurkari guztiekin dutena ere. "Urteak daramatzagu zestan eta aurkariak bertsuak dira beti. Partida asko jokatzen ditugu eta jokalaririk gutxi gara. Horregatik, denok ezagutzen dugu elkar eta lagunak gara. Dena den, lehiakorrek ere bagara, noski", zehaztu du Cosmek.

Ezin jauzia egin

Maila profesionaletik kanpo joka daitekeen maila gorenean aritzen dira hiru anaiak, eta udako oporraldian salbu, urte osoan jokatzen dituzte partidak atsedetik hartu gabe ia. Uda aurreko hilabeteak izaten dira gogorrenak, hain justu. Asteazken lau partida izatera iristen dira maiatza eta ekaina inguruan.



Cosme da partida gehien jokatzen dituen; Eduardoren arabera, ez dakielako ezetz esaten: "Txapelketa baterako deitzen dutenean beti ematen du baiezkoa; nik, berriz, ez. Anaia oso estu ibiltzen da gero, gainezka; nik nahiago dut lasaiago ibili. Gainera, ikasketei ere denbora eskaini behar diet". Txapelketa horiek sosik kobratu gabe jokatzen dituzte, baina kirola maite dute eta horrek ez ditu gogaitzen.

Aldiz, sentitzen dute goia jo dutela eta ez dizkietela behar bezainbeste aukerarik eskaintzen profesionalekin jokoan aritzeko: "Maila profesionaletik kanpo irabazi daitezkeen txapelketa guztiak irabazi ditugu; tartean, Espainiakoa. Horrek, ordea, ez du aparteko saririk; gero, Munduko Txapelketara, profesionalak eramaten dituztelako. Espainiako txapeldun garenok, berriz, hurrengo urtean txapelketa bera lehiatu beharko dugu berriro", dio Cosmek atsekabetuta. Eta Eduardok zera gaineratu du: "Ez dago pizgarririk".

Hori gutxi balitz, zirkuitu profesionalean aritzen diren jokalariak apenas aldatzen dira, eta pare bat salbuetsita, guztiak dira 30 urtetik gorakoak. Hori dela eta, txapelketa handietan aurre kanporaketak izatea aldarrikatu du anaia zaharrenak: "Frantzia nahiko ohikoa da txapelketen aurretik sailkatze kanporaketak jokatzea. Horrek profesionalekin indarrak neurtzeko aukera ematen die gazteeni. Hemen ere horrelako zerbait egin beharko lukete, zirkuitutik kanpo aritzen garenok dugun maila erakusteko aukera izan dezagun. Agian ez ditugu profesionalak garaituko, baina ziur naiz lanak zail jartzeko gai garela".

"Txapelketen antolatzaileek harmailak bete nahi dituzte. Horregatik, puntista berberengana jotzen dute beti. Gure aldean

Ezkerreko argazkian, Cosme Agirre; eskuinekoan, Eduardo Agirre.

**SABAIAREKIN TOPO
EGIN DUTELA ETA
PROFESIONALEKIN
ARITZECO AUKERARIK
EZ DUTELA DIOTE**

**ELKARREN ARTEAN ETA
BESTE PILOTARIEKIN
DUTEN PIKEA
OSASUNTSUA DELA
USTE DUTE**



Ezkerreko argazkian, Gonzalo Agirre.

izen handikoak dira, nahiz eta gehienak onenak emanda dauden. Kontua da guri ez digutela ezagutzera emateko aukerarik eman", kexu da Eduardo.

Atzerria

Urte batzuk atzera eginda, gazteek atzerrian zuten modu profesionalean zestan aritzeko aukera hori. Arazo ekonomikoak tarteko puntista askok etxera itzuli behar izan dute, ordea. Cosme bera ere atzerrian aritutakoa da: lau hilabetez jokatu zuen Mexikon. Estatu Batuetara joateko aukera ere izan zuen, Floridara, zehazki, Dania Beach-eko frontoira; baina bisarekin arazoak izan zituen eta Zumaian geratu behar izan zuen. Azaldu duenez, kontratua itxita zuen arren, Donald Trump orduko presidentearen migrazioaren aurkako politikak galarazi egin zioten Estatu Batuetan jokatzeko. Gerora beste eskaintza bat ere jaso zuen Daniatik, baina ordurako jakina zen frontoia ixtear zela eta nahiago izan zuen Euskal Herrian gaur egun duen lanpostuari eutsi.

Gonzalok penaz hartu zuen Daniako frontoiaren itxieraren albistea. Aitortu duenez, berak ere atzerrian jokatzeko ilusioa zuen, anaia nagusiak bezalaxe. Halere, ilusio hori ez du erabat galdu: "Espainiako txapelketa naiz 22 urtez azpikoetan eta ekainean Europako Txapelketa jokatzeko aukera izan dut Tolosan (Frantzia). Halako txapelketek jokatzen jarraitzea animatzen zaituzte, nahiz eta etorkizuna gero eta ilunago ikusi".

Agirretarren aurretik


Zumaian izan dira zesta puntan aritu diren familia bereko hirukote gehiago ere. Muguerza Perello anaiak, esaterako: Juan Ramon (Zumaia, 1963), Manu eta Miguel (Florida, 1965 eta 1967). Hirurak Estatu Batuetan aritutakoak dira haien aita bezalaxe, Manuel Muguerza (Zumaia, 1935). Azken hori izan zen, hain justu, kirolari herrian bultzada eman ziona. Berak zabaldu zuen Zumaian gaztetxoei zestan erakusteko lehen eskola. Bertatik pasatu zirenen artean, Osa Goikoetxea anaiak. Hiru, horiek ere: Luis, Igor eta Iñaki (Zumaia, 1975, 1976 eta 1980).

Xisteraz hitz egitean, ezinbestean aipatu beharreko abizena da Goikoetxea, zeren, anaia gazteena, Iñaki, inoizko puntista handienetako bat da. Hala ere, nork daki zer gertatu izango zen aurrez haren anaiak bidea hasi ez balute; izan ere, Iñakik berak azaldu duenez, anaien eredu jarraitu zuen berak: "Bi anaia zaharrenak izan ziren zestan jokatu zuten etxeko lehenengoak. Gernikan ditugun senitartekoen bitartez lortu genuen lehenengo zesta eta Zumaian antolatu zituzten zesta eskoletan hasi ziren Luis

eta Igor. Eurak ikusita animatu nintzen ni ere. Etxeko paretaren kontra aritzen nintzen poliki-poliki anaietako batek berarekin frontoira eraman ninduen arte".

Gerora anaia zaharrak izan ziren gazteenaren eredu jarraitu zutenak, Iñaki izan baitzen atzerrira joaten lehena. 16 urte zituela jokatu zuen estreinakoz profesional modura Milanen. Handik Estatu Batuetara mugitu zen eta frontoi batetik bestera ibili. Anaiak Estatu Batuetan batu zitzaizkion eta Luisen aurka ia egunero jokatu behar izan zuen biak zirelako aurrelariak. Igorrek, aldiz, atzelari jokatzeko zuten eta izan zuten bikote osatzeko aukerarik tarteka. Hirurak bereizteko, kamisetaren bizkaraldea irakurri besterik ez zegoen, Luisek bere izena zeraman, Igorrek lehen abizena, eta Iñakik bigarrena.

Iñaki da hiruren artean aktibo jarraitzen duen bakarra eta oraindik ere hara eta hona dabilena. Igorrek, duela 15 bat urte utzi zuen kirola etxera itzultzeko eta Luisek duela lauzpabost. Estatu Batuetan jarraitzen du, baina aurki omen da etxera itzultzekoa.



Muguerza anaiak aitarekin.

Edonola ere, Iñakik dio dagoeneko igartzen duela gorputzaldia ez dela lehenengo bera. Hori bai, aurrera jarraitzeko gogorik ez zaio falta, eta gorabeherak gorabehera, sasoiko dago. Horregatik, momentuz nahiago du erretiroari datarik ez jarri, dituen sentsazioen arabera hartuko du erabakia. Erreleboari dagokionez, bestalde, gazteek lehen baino zailagoa dutela uste du eta jaialdietan aldatetako egitearen aldekoa da bera ere. Irtenbide posible bat esku pilotan estelarraren aurretik eta ondoren jokatzeko diren lehen eta hirugarren partidak leheneratzean ikusten du: "Erakuslehoak lirateke gazteentzat". ■■■



ASKE MAITE bertako
ASKE BIZI! igogailuak | ascensores

www.bertako.eus

GIPUZKOA 943 903 450

Agurreko errituetan gidari eta laguntzaile

Silvia Alvarez, beilatokiko harrera arduraduna eta Albia Gipuzkoako bultzatzailea

Heriotza bat gertatu ondoren, senitartekoak artatu eta hildakoa behar bezala agurtzeko kudeaketan egiten du lan Silvia Alvarez Albia beilatokiko langileak. Gurasoen heriotzak gaia gertuagotik ezagutzera eraman zuen halabeharrez, eta hildakoaren ingurukoei laguntzeak asebetetzen du orain.

Testua: **Maria Maya Manterola**. Marrazkia: **Irene Irureta eta Karmele Gorroño**.

Zumaiako Albia beilatokiko atek zabaldu, pasillo zuria zeharkatu eta irribarrez jaso du Silvia Alvarez beilatokiko langileak kazetaria. Ostegun goiza da, eta hutsik daude beilatokiko gelak, baina harreran egotea eta deiak erantzutea da bere zeregina, zer gerta ere. Lekuak sor dezakeen estutasunaz jakitun, sakelakoa patrikan sartu eta inguruko taberna batean kafe bat hartzeko proposatu dio kazetariari.

Arrapaladan hasi da ofizioaren nondik norakoez. Hiru urte baino ez daramatza beilatokian lanean. Lehenago, hamarkada bat baino gehiago igaro zuen *El Diario Vascorentzat* eskelak maketatzen lanean. "Askotan hitz egin behar izaten nuen hildakoaren ingurukoekin. Nagusiak esaten zidan balio nuela, eta bazekiela heriotzarekin lotutako zerbaitetan egingo nuela lan etorkizunean ere", dio Alvarezk.

Lan hura uzteko erabakia hartu eta beilatokian lan elkarrizketa egin zuenean, ordura arte egunkarian bere nagusia izan zenak beilatokiko arduradunari Alvarez kontratatzeko gomendatu zion. Hilabete pare baterako norbaiten bila zebiltzan, eta Alvarezen profila aproposa iruditu zitzairen. Lehen kasua "gogorra" izan zela dio, eta nagusiak esan zion pauso hori gainditzen bazuen, balioko zuela lan horretarako. Arin igaro zitzaizkion bi hilabete haiek. Agur gisa lankideek egin zioten afarian, ordea, urrunegi ez joateko esan zion nagusiak. Berehala egin zioten behin betiko kontratua.

Hil denaren senitartekoak artatzea izaten da Alvarezen lana, eta arreta hori ondo ematen diela uste du. Ez, ordea, ausaz. "Hamazazpi hilabeteke epean galdu nituen gurasoak, 23 urte nituela. Gogorra izan zen. Uste dut esperientzia horrek eman didala enpatia irakaspén bat", azaldu du. "Badakit, adibidez, espero gabeko heriotza



irrimarra



kasuetan, shock egoeran egon ohi direla, eta behin baino gehiagotan errepikatu behar zaizkiela gauzak", dio. Prozesu guztia bideratzen du Alvarezek, lehen arreta ematetik bezeroei aukera ezberdinak azaldu eta apaizarekin hitz egiteraino.

Bezeroekin ez ezik, lan eremuan ere giro ederra jartzen trebea da Alvarez, eta gaitasun hori saritu diote berriki Albiako arduradunek. "Lankide baten deia jaso nuen. Hasieran errieta egiten hasi zitzaidan, eta pentsatu nuen zerbaitekin hanka sartu nuela. Txantxetan ari zen; Klima saria emango zidatela esan zidan gero. Ez nuen ezer ulertu, eta erantzun nion okerren batek egon behar zuela", dio Alvarezek. Baina ez. Klima saria eman zioten bere lan onaren errekonozimendu gisa, eta pozarren jaso zuen.

Oro har gizartean bezalaxe, ofizioetan ere islatzen dira estereotipoak, baina hori aldatzen ari da beilatokiko langileetan, Alvarezen arabera. "Albia Espainiako frankizia bat da, eta langile gehienak gizonezkoak dira, baina Gipuzkoan emakumezkoak gara gehienak", dio. "Emakumezkoak gai gara lan hauek egiteko. Nire bi lankideak, esaterako, gorpuaren bila joaten dira etxeetara. Badugu nahikoa indar horretarako ere; ez gara makillatzaileak bakarrik".

Beilatokian lan egiteko, komeni da emozionalki indartsu egotea, eta horretan lagundu diote Alvarezek behar izan duenean. Azaldu du psikologo taldea dutela eskura, eta enpresak arreta jartzen duela langileen zaintzan. "Triste baldin banago, ezin diot arreta egokia eman familia bati. Hala ere, gertatu izan zait negarrez hastea, hil dena laguna zen kasuetan, adibidez", dio. Profesionala izaten saiatzen dela esan du Alvarezek, baina gauza batzuk ukaezinak direla, "gizakiak garelako".

Ezagunak diren kasuetan, pena handiagoa hartzen duela dio Alvarezek, baina tristezia hori

familiari laguntza ematera bideratzen du: "Lagundu behar diedala pentsatzen dut. Barru-barrutik ateratzen zait".

Hurkoa agurtzeaz

Heriotza gertutik jarraitzea Alvarezen egunerokoa da, baina badaki gaia tabua dela. Haren hitzetan, "bizitzaren parte" den heinean, gizarteratzeko ahalegina egin beharko litzateke. Hezkuntzan, esaterako.

Gaia bere kabuz landu duenarentzat eramangarriagoa da gero ingurukoaren galera, Alvarezen arabera: "Lasai egoten dira, eta uste dute hil dena hobeto dagoela horrela gertatuta". Alvarezek uste du horretarako beharrezkoa dela gaztetatik familian ere gaia lantzea, aitona-amonon heriotza kasuetan, esaterako. "Azalpen bat jaso daiteke gurasoen aldetik. Beilatokian ikusi ditut haurrak aitona-amonak agurtzen, eta poza eman dit normaltasunez hori egiteko gai direla ikusteak, dolua prozesu errazagoa delako gero".

Norberak bere erara, baina agurtzea beharrezkoa da, Alvarezen arabera. "Nik aukera izan nuen gurasoak agurtzeko. Minbiziarekin hil

Silvia Alvarez Fernandez

- **Adina:** 40 urte.
- **Ikasketak:** Marketina eta Publizitatea.
- **Lanbidea:** harrera arduraduna eta Albia Gipuzkoako bultzatzailea.
- **Administratzailea ez banintz...** margolaria.
- **Lanetik ateratzean gogoko dut...** Txakurrarekin paseatu eta naturatik gertu ibili. Behar dut.



ziren biak. Heriotza bat-batekoa den kasuetan, ordea, zailagoa izaten da behar bezala agurtzea", dio. Beilatokian ere ematen dute horretarako aukera, asko lehendik agurtuta egoten diren arren.

Heriotza bezainbeste modu daude agurra egiteko, baina Alvarezek berak agur laikoak ditu gustuko. Horretarako lekuren bat egokitzea gustatuko litzaioke: "Beilatokia zuria da, argitasuna eta bakea emateko, baina ez da batere leku erraza. Uste dut agur laikoak egiteko leku

aproposen bat izango bagenu, jende gehiago gerturatuko litzatekeela". Joera hori izango dela uste du bera baino belaunaldi gazteagoetan.

Agurraren ondorengo urratsa izaten da gorpuzkiak lurperatu edo erraustea. Erraustearen aldekoa da Alvarez. Zaragozan ezagututako errausten lorategia ekarri du gogora: "Errausten ondoan lore bana landatzen dute. Hilerrien aldean, lorategi zoragarriak dira, eta Zumaian horrelako zerbait egotea gustatuko litzaidake". ■

NON DAGO BALEIKE?

Baleike pertsonaia aldizkariaren zein orrialdetan dagoen ezkutatuta aurkitu behar da, eta erantzuna aldizkaria@baleike.eus e-posta helbidera bidali zutailaren 22a baino lehen.

Saria: TIPITAKin bi lagunentzat gosari eder bat. Baleikeko Komunikazio Taldean bazkide izatea da baldintza bakarra.

Ekaineko Baleike aldizkarian Baleike pertsonaia non ezkutatuta zegoen asmatu behar zen: 16. orrialdean zegoen ezkutatuta, eta **Ainara Mugika** bazkidea izan da irabazlea.



BALEIKE

IZAN KA

IRAKUR ZALE!

ALOKAGAI
321213 123
SALGAI

HOTZIKAR
TOKIKO MERKATARITZ

BALEIK



Batzarretako aurkezpena...
LURRARI ETA
NATURARI LOTUTA

BIZITZA BERRI

BIZITZA BERRI

BIZITZA BERRI

BIZITZA BERRI

BIZITZA BERRI

BIZITZA BERRI

BIZITZA BERRI

BIZITZA BERRI

BIZITZA BERRI

BIZITZA BERRI

BIZITZA BERRI

BIZITZA BERRI

BIZITZA BERRI

BIZITZA BERRI

BIZITZA BERRI

BIZITZA BERRI

BIZITZA BERRI

BIZITZA BERRI

BIZITZA BERRI

BIZITZA BERRI



EGIN BAZKIDE ETA %30 EKO
DESKONTUA IZANGO DUZU

bazkide@ukt.eus • 943-81 38 41

BALEIKE

LAGUNTZAILEA:



Gipuzkoako Foru Aldundia



Haurraren autoestimua zaintzen



MIREIA CENTENO

PSIKOLOGOA

Autoestimua osasun emozionalaren oinarrietako bat da. Haurra, sortzen den momentutik, bere autoestimua garatzen hasten da. Aurrena autoestimua pertsonala eraikitzen dugu, eta gero, horren gainean ditugun rolen arabera, beste guztiak. Gaur, gure egunerokotasunean haurraren autoestimua zaintzeko, hartu-emanen egin ditzakegun hainbat puntuz hitz egingo dugu.

Haurraren erritmoak errespetatu egin behar dira. Edozein prozesutan, haurraren garapenean behar den heltzerik ez badago, ez du lortuko modu autonomoan edozein abilezia bereganatzea. Adibidez, oinez ikastea, bizikletan ibiltzea, irakurtzen ikastea... zenbat eta gehiago insistitu haurra prest ez dagoenean, orduan eta zailtasun gehiago sortuko zaizkio.

Ez jarri baldintzarik maitasunari. Zentzu handiko ideia da, baina batzuetan mezu kontrajarriak ematen dizkiegu haurrei: “Ez bazara zintzo portatzen, ez zaitut maiteko”, edo ez hain bortitza, “Gaur asko

maite zaitut oso ondo portatu zarelako”.

Bere sentimenduak kontuan hartu. Puntu hau oso garrantzitsua da eta eragin zuzena du haurraren gain. Triste dagoenean, bere tristura onartu; haserre dagoenean, bere haserre onartu. Pertsona baten sentimenduak onartzea, beraz, den bezalakoa onartzea da. Bere sentimenduak garrantzitsuak direla sentitu behar du bera garrantzitsua dela sentitzeko.

Helburu posibleak ezarri haurrarentzat. Helburuek lorgarriak izan behar dute (bakarrik jantzi, norberaren arropa gorde...); beraz, adinarekin eta gaitasunekin bat datozen helburuak ezarri. Helburua lortzen zaila bada, efektu negatiboa sortzen du, eta motibazioa gutxitu egiten da.

Ondo egiten dituen gauzak egin. Askotan gaizki egiten

SAIATU BEHAR GARA HOBETZEN, BAINA PUNTU INDARTSUETAN ERE JARRI BEHAR DUGU ARRETA

duguna hobetzen saiatzen gara etengabe, eta hori oso zapuzgarria izan daiteke. Beti saiatu behar dugu hobetzen, bai, baina benetan gure puntu indartsuetan jarri behar dugu arreta. Horregatik, musikan ona bada, musikako klaseetara joatea komeni da, baina torlojuak lotzen iaioa bada, etxeko torloju guztiak askatuko ditugu berak lotu ditzan.

Ez konparatu. Ez konparatu anai-arrebekin, ezta bere lagunekin ere... “Begiratu zer ikasle ona den...”, “Zergatik ez duzu zuk pixka bat gehiago ikasten?” edo “Begiratu zer ona den futbolearen, zu gehiago entrenatuko bazina...”, “Begiratu nola egiten dituen etxeko lanak zure anaiak”.

Beraien lana eta jarrerak baloratzeari utzi eta akatsak egiten utzi. Akatsa da ikasteko modurik egokiena. Garrantzitsua da akatsak egitea ikaskuntza eraginkorragoa izateko; horregatik, saiatu ez kritikatzeko huts egiten duenean; huts egitea bera kritika bat da. Aurrerapenak zoriondu, eta ez lorpenak; aurrerapenak zoriontzeko jarraitzeko motibazioa ematen digu eta. ■■■




DOMINOAN Bete itzazu lauki zuriak
domino-zati honek zentzua izan dezan.



Elementu haueetatik guztietatik bat zortzi aldiz
ageri da eta beste elementu bat soilik behin.
Zein dira? Eta zenbat lanperna daude?

ITSASKI FESTA




Hemen buru bakoitzak zorri bana du eta hizketan
ari dira, baina zer diote? Erabili hizki-marrazki
alfabetoa eta erraz ulertuko duzu.

ZORRI HIZTUNAK


HIZKI-MARRAZKI ALFABETOA

A	B	C	D
E	F	G	H
I	J	K	L
M	N	O	P
Q	R	S	T
U	V	W	X
Y	Z	.	!
,	?	:	

Itzala Hondarretan gazteluak egitea bai dibertigarria! Zein da Markelen itzal zuzena?



Badonk 13 Aurki itzazu bi itsasontzien artean dauden 13 aldeak. Bestalde, itsaspea margotu beharko zenuke, eta marmokak eta arrain batzuk ere marraztu, horrela triste samar dago eta.



Soluzioak ikusteko: www.plazanbazan.eus/

Jexux Iribar 'Olalde'

ARGAZKIA: ARNAITZ RUBIO APREA

1956ko Gabon bezperan jaio nintzen Zestoako Olalde baserrian. Baserriaren izenetik datorkit izengoitia, *Olalde*. Lau anai-arreba gara, eta ni naiz zaharrena. Bitxia da: anaia Felix, bere izenagatik ezagutzen dute; ni, berriz, Olalde izan naiz beti lagunentzat eta ezagunentzat. Bertsotan ere hala bataiatu ninduten, neuk ez nekiela.

Orain lau urte erretiratu nintzen, eta berehala ohitu naiz bizitza berrira. Lanean gustura egotea garrantzitsua da, baina bizitza bakarra da, eta beste gauzak egiteko ere denbora behar duzu.

Txikitatik nuen bertsotarako zaletasuna. Ardiak zaintzen, simaurra banatzen, nire kasa aritu naiz askotan. Parrandan ateratzen ginenean etxera bueltatzeko presarik ez genuen izaten, eta bertsotan ibiltzen ginen; erromerietatik kotxean bueltan ere berdin. Soldadutzarako despedidan Jose Luis Mugarza *Elgetzu* bertsolari mallabitarra inguratu zitzaigun eta bertsotan aritu ginen afalostean. Hark esan zidan bertsotan aritu behar genuela plaza batean, Garain, Durango ondoko herri polit batera. Goizean ondo aritu nintzen, baina arratsaldean barregarri. Nire buruarekin lotsatuta, esan nuen hor bukatuko zirela nire bertso lanak. Handik egun batzuetara *Elgetzuk* deitu zidan berriro, eta beste saio bat egin behar genuela esan zidan. Nik ezetz. Azkenean konbentzitu ninduen, eta han hasi nintzen plaza batzuk egiten Bizkaia aldean. Hemeretzi urte nituen, oraindik soldadutzara joateko nengoan. Bertsotan aritzeko gogoan nuen, *sake librean* aritzen nintzen, amaierak pentsatu gabe askotan. Nire kabuz ikasitakoa naiz. Kasete grabagailu bat erosi nuen eta jaialdiz jaialdi ibiltzen nintzen aitaren 124 familiarra hartuta saioak grabatzen. Gero etxean ikasten nituen doinuak, errimak eta abar. Hori bai, ez naiz asko aritu plazetan; ez nintzen ona, eta asko sufritzen nuen. Bat-bateko bertsogintza zaila da eta kontzentrazioa behar duzu; ni urduri egoten nintzen, eta beste bertsolari batzuen ondoan barregarri geratzeko beldurra ere izaten nuen.

Bertsotarako nuen erraztasuna soldadutzak zapuztu zuen neurri batean; Melilla ez zen plaza ona horretarako, baina idazten nituen gutunak bertsotan idazten nituen. Soldadutzatik bueltan bertsolari gazteen txapelketa dezentetan hartu nuen parte; Txapelketa Nagusiko azken laurdenean, eta Gipuzkoako finalerdi fase batean ere kantatu dut. 2006an utzi nion kantatzeari, santa eskeak bukatu zirenean. Ordurako hamar bat urte edo neramatzen plazak utzita.

Pilotazale porrokatua naiz. Jokatu, ez dut inoiz jokatu. Beno, Zumaian txapelketa herrikoian hartu dut parte; eskola garaian, berriz, txapelketa bateko finalera ere heldu nintzen profesional izango zen Atano XIII. arekin batera. 2005. urtetik nabil Dinastia Etxabe pilota txapelketa antolatzen. Jokatuko duten pilotariak aukeratzea erantzukizun handiko lana da. Jende askorekin hitz egiten dut, jakiteko zein dabiltzan hobekien. Jubenil eta 23 urtez azpikoen mailan jokatzen da txapelketa eta helburua da datorrenari, pilotan aritu nahi duenari aukera ematea. Egun profesioaletan dabiltzan pilotari asko pasatu dira hemendik: Altuna, Laso, Irribarria, Dario, Rezusta, Jaka...Azken 17 urteotan hemen aritutako 40 bat pilotari pasatu dira profesioaletara.

Dinastia Etxabe Euskal Herriko txapelketa garrantzitsuenetakoa zen. Azken urteetan galtzen joan zen eta 2005. urtean hasi ginen poliki-poliki txapelketa kutsua berreskuratu nahian. Odieta bota zutenean, 2008tik aurrera Zestoan jokatu zen, eta arriskua egon zen ez jokatzeke. Egoera haren aurrean Zumaia Pilotari Elkartearen ere iritzi desberdinak zeuden. "Total, bi urteko kontua izango da frontoi berria egiteko, eta ez du merezi kanpora joatea jokatzerara", zioten batzuk. Zortzi pasatu ziren azkenean. Batzuek ikusten genuen sua pizten ari zela berriz, txinparta bazegoela, eta jokatzeari uzten bagenion, txapelketa galtzeko arriskua zegoela. 2016tik Zumaian jokatzen da berriz, eta aurten 50. edizioa biziko du. Nik uste jarraitu behar duela kanpotik ere jende asko etortzen da eta. Jendeak nahi ditu pilotariak ikusi telebistatik kanpo, pilotariak zuriz jantzita kantxaratzen diren momentu hori deskribaezina da eta. ■■■



64 koadroko hezkuntza proiektua

TESTUA: JUAN LUIS ROMATET

ARGAZKIAK: ARNAITZ RUBIO APREA

Pausoz pauso batzuk, espazio osoa zeharkatuz besteak. Hala mugitzen dira xakeko piezak taula gainean; erasora, baina baita defentsa lanak eginez ere. Kirola batzuentzat, mahai jokoa besteentzat, antzinatik datorren diziplina da xakea. Baina hori baino gehiago ere izan daiteke: hezkuntza proiektu oso bat ere abiatu daiteke peoi, alfil eta errege-erreginen dantzatik.

Hala erakutsi dute amaitzear den ikasturtean Oikia auzoko eskolan. Eskolan emandako hezkidetzaren proiektu baten oinarria izan dute xakea ikasturte honetan zehar, eta ikastetxeko arduradunen esanetan, esperientzia aberasgarria izan da haurrentzako, baita eskolako ekosistema osatzen duten kide guztientzako ere.

"Betidanik izan dut xakea gustuko", azaldu du Oikiako Eskolako zuzendari Itziar Garciarena Arrietak. "Matematikako irakaslea ere banaiz, eta orain dela urte batzuk ikasgai horretako klaseetan xakea txertatzeko saiakerak egin nuen. Nahiz eta haurrei xakean aritzea gustatu zitzaie, ohartu nintzen horren atzean beste zerbaitek egon behar zuela. Orain dela pare bat urte xakean oinarritutako formakuntza eskaintza bat heldu zitzaigun. Irakasleei zuzenduta zegoen, eta Julian

Perezen *Siete colores del ajedrez educativo* liburuan oinarritzen zen". Eskolan xakea lantzerantz bideratuta zegoen eskaintza zela gaineratu du zuzendariak.

Nola sartu, baina, mahai joko bat eskola baten egunerokoan? Hori izan zuten erronka Oikiako Eskolan. "Hor sartu zen hezkidetzaren proiektua. Ikusi genuen xakeak harreman handia zuela hezkidetzarekin, eta Hezkuntza Sailari proiektu hori ematea eskatu genion. Iaz eskaera onartu ziguten, eta eskolan planteatu dugun proiektu honek xakea izan du oinarri handi bat", esan du Garciarenak.

Xakeak transmititzen dituen zenbait baliok hezkidetzaren lantzen dituzten gai askorekin bat egiten dutela uste dute Oikiako Eskolan. "Errespetuzko jokoa da, eta leialtasuna eta zintzotasuna sustatzen ditu, besteak beste. Balio horiek gure irakaskuntza prozesuan antzeman daitezkeen nahi izan dugu", gaineratu du Haritz Gorriti Arrue irakasleak eta hezkidetzaren proiektuko arduradunak. Balio horiek ikasgelatik atera nahi izan

MAHAI JOKOAREN BALIOAK ESKOLA MUNDURA ERAMATEKO IRUDIMENA ERABILI BEHAR IZAN DUTE

dituzte "modu ludikoago batean lantzeko". "Jolasen balio hezitzaileez hitz egiten duten ikerketa asko daude. Aipatzen dute, besteak beste, jolasek sozializazioan laguntzen dutela, gatazkak konpontzeko baliagarriak direla, norberaren autonomian konfiantza hartzen laguntzen dutela, eta, batez ere, motibazioarako tresna apartak direla. Ikusita guk sustatu nahi izan dugun lanketan jokaera horiek guztiak ukitzen genituela, lanketa bat egin genuen xakea ikasgai akademikoetarako erreminta bihurtzeko".

Mahai jokoa balio horiek eskola mundura eramateko irudimena erabili behar izan dutela nabarmendu dute. "Taulaz baliatuz, adibidez, gizarteko botere harremanak landu ditugu; profil bat bestearen gaineratik ez hobesteko saiakerak egin ditugu; imajinatu dugu xakeko sei pieza horiek nolakoak izango ziratekeen hezur eta haragizkoak izango balira; genero identitateak landu ditugu, neska eta mutila izateak zer suposatzen duen aztertuz; zuri-beltz koloreek ere joko handia eman digute azalaren koloreaz hausnartzeko; baita erreginen figurak ere, pieza bakarra izanda ere taula osoan mugi daitekeelako", aletu du Gorritik. Eskolako alderdi guztietara zabaltzeko tresna bezala definitu du hark xakea.

Astean ordubete eskaini diote jokoari Oikiako Eskolan. "LH1etik 3ra matematikako orduetan eman dugu, eta LH5etik 6ra tutoretzako orduetan. HHko hurrekin azkenaldian hasi gara, eta hor bai, hor nabaritu dugu denbora falta", argitu du eskolako zuzendariak. Garciarenak esan duenez, ordu osoa ez dira jokoan aritzen, "ikasleak desiratzen egoten badira ere. Joko horretatik abiatuta beste gai asko landu ditugu, baina azken hoge minutuetan xake partidak jokatzeko aukerak izan dituzte".

Arnasgunea batzuentzat

Oikiako Eskolako ikasleek xakeari harrera ezin hobea egin diotela azpimarratu dute. Ez alderdi ludikotik bakarrik begiratuta, baita heziketa aldetik ere. "Gela barruan aulkian eserita eta arbelari begira egoteko aparteko zailtasunak dituzten ikasleak ere oso gustura aritu dira; beste ikasleak baino hobeto, kasu batzuetan. Beraientzako arnasgune bat ere izan da", nabarmendu du Gorritik.

Aurtengo inauterietan egindako mozorro jaialdia izan da xakearen inguruan antolatutako ekintzetako bat. Xakearen inguruko mozorro festa tematikoa izan zela dio Gorritik: eskolako ikasleak eta irakasleak xakeko pieza bizidun bihurtuta, partida bat jokatu

zuten eskolako Zumaiako Udalak jolastokian margotu zuen taula erraldoian. Jaialdi hori prestatzeak lan handia suposatu ziela ere azpimarratu du irakasleak. "Klaustroan asko landu genuen gaia izan zen, eta mozorroak egiteak berak lan handia eragin zigun. Gauza bat da paperean margotzea, eta bestea, horiekin mozorroak egitea". Ez hori bakarrik, pieza bizidunak zuriz edo beltzez, zegokien koloreetan goitik behera janzteak edo margotzea erabaki zuten. "Azkazalak barne. Horiek margotzea erronka bat izan zitekeela hausnartu genuen klaustroan. Ikasle askori, gehienbat mutileri, erreparoa ematen zien, baina margotu zituztenean, handik hilabetera oraindik pintura arrastoak zituzten azkazalatan. Margotze horrek bakarrik hezkidetzarekin lotzeko beste aukera bat eman zigun".

Inauterietako mozorroak, ikasturtean zehar ikasleek egindako marrazkiak eta banderak, edo, hezkidetzarekin lotuta egun esanguratsuen harira (Martxoak 8, Emakumeen Eguna; Maiatzak 17, LGTBI+ Fobiaren Aurkako Nazioarteko Eguna; edo Azaroak 25, Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna) egindako lanketak eraikinaren sarreran atondutako Xakearen Txokoa ikus ditzakete eskolan sartzen diren guztiek. "Bertan

egoten dira ikasleak xakean jokatzeko. Espazio hau aldatzen joaten da beharren arabera: mahai gehiago jar ditzakegu, edo erabat kendu bilera bat edo antzezlan bat egiten dugunean. Gero, gela guztietan xake taulak sartu ditugu, eta jangelako orduetan ere xakean aritzeko aukera dute hurrek", esan dute.

Partidak hasi aurretik, hori bai, zeremonia jakin bat bete behar dute ikasleek: "Elkarri eskua eman, partida on bat izatea desio, eta emaitza onartu". Taulan gertatzen dena taulan geratzen dela azpimarratu du Garciarenak.

Berrikuntzetara ohitutako herria

Plangintza hori gurasoek nola hartu duten galdetuta, "jada ohituta" daudela esan du Gorritik barre artean. "Proiektua aurreko urte amaieran aurkeztu genuen, eta ez dut uste familiek sorpresa-rik hartuko zutenik. Haritzek dioen bezala, hainbeste gauza berri ekartzen ditugu... Proiektu berri batean ikusi egin behar dira emaitzak, ebaluatu egin behar da eta erabaki ea benetan ordu horiek eraginkorrak izan diren. Oraindik ez dugu ebaluazio hori egin, baina pentsatzen dugu positiboa izango dela", iritzi dio Garciarenak.

Proiektuaren arrakastan eskola beraren izaerak eragina izan due-la diote zuzendariak zein irakasleak. "Eskola txikia izatea baliagarria izan zaigu errazago koordinatzeko. Ikastetxean adin aniz-



Xakearen Txokoa egokitu dute Oikiako Eskolan.



EUSKARAZ XAKEKO EDUKI GUTXI DAGOELA ETA, MATERIALA SORTZEN HASI DIRA IKASLEEKIN

XAKEAREN INGURUKO MOZORRO FESTA TEMATIKOA EGIN ZUTEN PASA DEN INAUTERIETAN



dugu eta bideoak egiten hasi gara ikasleekin. Oraingoz gutxi batzuk daude, eta denen eskura jarri ditugu. Pixkanaka joango gara jarraipena ematen", gaineratu du ikastetxeko zuzendariak.

Pozik da esperientziak izan duen erantzunagatik, baita eskolako eremutik atera eta herrira zabaldu delako ere. "Haurrek etxera ariketa txiki batzuk eramaten zituzten, eta etxean erantzunda ekarri behar zituzten. Orain, xakera jokatu gabe urteak zeramatzen guraso batzuk berriro jokatzen hasi dira umeekin, eta bada bilobarekin jokatzen duen aitonaren bat ere!", txalotu du Garciarenak.

Asko egiteko

Lanketa honekin hasi besterik ez direla egin azpimarratu du Oikiako Eskolako zuzendariak. "Programaren %8 edo egingo genuen eta oraindik asko dago egiteko. Hurrengo erronka, agian, izango da xakea irakasleei beraiek irakastea, eta, akaso, gurasoak gonbidatzea torneo txiki bat jokatzeke. Hori guztia ezin da urte bakarrean egin, baina bai, geratzeko proiektu bat da hau". ■■■■



Itziar Garciarena eta Haritz Gorriti jolasguneko xake taula erraldoian.

tasuna izateak ere lagundu diela nabarmendu dute.

Urtean zehar ohartu dira, baita ere, xakearen inguruko eduki oso gutxi zegoela euskaraz. "Taulak

nolakoak diren, piezak nola mugitzen diren... halakorik ez dago euskaraz". Hori dela eta, materiala sortzen hasi dira. "YouTuben Oikiako Eskolaren kontua sortu

PUBLIZITATEA

EGOKI



Eroju eta bitxi denda

E. Gurrutxaga plaza, 6
tel. 943-86 17 87

ekin
Elektrikistaketa, L.L.

Erribera kalea, 6 20750 Zumaia tel. 943-14 30 97
ekinsi@ekinsi.com www.ekinsi.com

**Instalazio elektrikoak
Telekomunikazioak
Informatika
Internet**

mara **MÁSMÓV L**



ERNTO TABERNA

V. Arrate, 3 Tel. 943-86 00 45

Ertz Informatika

ORDENAGAILUAK · MUGIKORRAK · KONPONKETAK

Behoko plaza 943-14 33 95

Garaa

Carlos Cintero / Ainhoa Olaizola

tel.: 943-86 21 81
Txomin Agirre, s/n
40719 ZUMAIA (Gipuzkoa)

GLENCOE
INGELES AKADEMIA

TALDE MURRIZTUAK

Zumbilo kalea, 12 beheha
tel. 670 39 17 77

matrikulazioa dohainik!



Ikastegi homologatua

Golden Gate
institute
hizkuntz eskola



Erribera kalea 1 bis, beheha
tel./faxa 943-86 50 20
info@goldengateinstitute.com

Gure-Txokoa
taberna



Upela plaza, 4
20750 Zumaia
Tel.: 943-86 09 70

Harvest
English School

...eta udaran Ingalaterrara ingelesa praktikatzera

www.academiaharvest.com

San Jose, 11 bis tel. 943-14 33 34

ilarzi



Alai auzategia, 2
Tel. 943-24 50 20

INPERNUPE ELKARTEA



Erribera kalea 16. Tel. 943-86 15 23

Iriondo optika
Optometria - audio zentroa

Kantauri plaza, 8. Zumaia. tel.: 943-86 04 86
Nagusia, 53. Azkoitia. tel.: 943-85 19 84

IRUDI OTS



Ikuskizun orotarako solinu eta argiztapen alokalirua
Hots eta irudigintza aretoa

tel. 943-63 16 32 irudiots@irudiots.com


MISTOA IRUITZ
ileapaindegia

Analisi kapilarrek eta tratamendu personalizatuak



San Telmo12 943-86 07 60

ORRAZTEGI ZUMAI A



943-86 20 83

JUARISTI
jagetxea

Arrainak eta haragiak aukeran
Eguneko menua
Jangela klimatizatua

Basadi auzategia, 10 tel. 943-05 05 77

KABI TABERNA

Patxela Elvezarreta, 15
943-11 74 27





EVA FRANCO

Otsaila. Gaia: Islak.

Etxe barruko lanaren emaitza

Elkarteko bazkideei zuzendutako lehiaketa soziala antolatu du aurten ere Distira Argazki Elkarteak. Kurtso hasieran jarritako gaien inguruan argazkiak atera dituzte bazkideek hilabetero, urritik maiatzera bitartean. Argazkiak: **Distira Argazki Elkarteak.**

Pandemiaren okerrean abian jarritako lehiaketak jarraipena izan du aurten ere. Distira Argazki Elkarteak bazkideei zuzendutako argazki lehiaketa jarri zuen martxan 2020ko udazkenean. Beste argazki elkarte batzuk antzerako lehiaketak antolatzen zituztela ikusita, Zumaiakoak ere esperientzia hori bere bazkideei eskaini nahi izan zien.

Hala, kurtso hasieran, udazkenean, hilabete bakoitzerako gaiak zehaztu zituen antolakuntzak, eta argazkilariek beraien jakituria, irudimena eta teknika aplikatu behar izan zuten lehiaketarako irudiak ateratzeko. Hilabetero iragarri zituen Distirak irabazleak, eta kurtso amaieran eman zituen sariak.

Lehen urteko esperientzia positiboaren ondoren, 2021eko udaren bueltan lehiaketa sozialaren bigarren edizioa jarri zuen martxan Distira Argazki Elkarteak. Lehen urtean egin bezala, urritik maiatzera bitartean egin dira lehiaketak, hilero gai jakin bat izan dute argazkilariek: librea zuri beltzean zein koloretan, paisaia, makroa, gaueko argazki urbanoa, islak, leihoak eta ateak eta loreak.

Orri hauetan jasotako argazkia izan dira lehiaketako irabazleak.



DAVID DE LLODIO

Abendua. Gaia: Makro.



IBAI ARTETXE

Maiatza. Gaia: Librea zuri beltzean.



DAVID DE LLODIO

Urtarrila. Gaia: Gaueko argazki urbanoa.




EVA FRANCO

Urria. Gaia: Librea koloretan.



MAITE ETXABE

Azaroa. Gaia: Paisaia.



DAVID DE LLODIO

Martxo. Gaia: Leihoak/ateak.



IVAN RODRIGUEZ

Apirila. Gaia: Loreak. banderas similares. ■■■

Aldarri bat zalantzaren alde

TESTUA:

MARIA MAYA MANTEROLA

“Badena zalantzan jarri, eta ez dena ere bai. Zergatik eta zertarako, gero eraikitzeko”.

Hitz horiekin aurkeztu du Ainhoa eta Aitzol bikoteak bere lehen diskoa. Ekainean aurkeztu zuten plataforma digitaletan, eta fisikoki ere eros daiteke. *Ezbaian* izenburupean, piano kolpeak eta gitarraren akorde leunak bildu dituzte musikariek. Ainhoa Urteagaren ahizpa Leireren bateria hotsen eta Eneko Atxaren laguntza izan dute melodietan. Erregistro bakarrera mugatzea hasieratik baztertu du bikoteak, eta askotariko soinuak bildu ditu bilduman. Ozen Estudioan egin dituzte grabaketak, Jurgi Taboadarekin.

Ainhoa Urteagaren arabera, baietzaren eta ezetzaren artean daude bizitzako bidaideak eta erantzunak, eta erabaki horiei guztiei egin nahi izan diete keinu beren lanean. “Pertsonak, inguruak, egoerak badatoz eta badoaz eta gu eraldaketaren parte gara. Gure bizitza igarotzen ikusi baino, bizi nahi dugu, hitzaren esanahia bere osotasunean, hori da gure hautua”, azaldu du piano jotzaile zumaiarrak.

Kontzertuetan nork bere barrura bidaiatzeko gonbita egiten diete entzuleei, eta diskoarekin gauza bera iradoki nahi izan dute. Izan ere, azaldu dute garrantzi handia ematen



diotela “bizitza sentitzeari”. “Gizarteak inposatutako ardura eta estimulazioen gatibu” izan ordez, pausa bat egiteko aitzakia izatea nahi dute, hain zuzen. “Gure ‘ni’ lotsatiaren beldur gara maiz. Gizakia ahula da, eta akatsak egiten ditu, baina horrek darama indartsu bilakatzerara. Gailentze horretara gonbidatu nahi dugu gure entzulea”, diote.

Joan den ekainaren 26an aurkeztu zuen bikoteak diskoa, Zumaienako Baso Magikoan,

gertukoak, Astindu dantza taldeko kideak nahiz Zumaiako sortzaileak lagun. Aurrerantzean kontzertu gehiago ematea gustatuko litzaieke, “plaza berriak goxatzeko gogoz” baitaude. Dena den, gogorazi dute beren Instagram kontura (@ainhoa_aitzol_) idatzita edo posta elektronikoz (ainhoataitzol@gmail.com) eskuratu daitekeela diskoa, baita Kabi tabernan, Portutxiki kantuan eta Labarra tabernan ere. ■■■

EDUKIEN SORKUNTZA

• EDUKIEN SORKUNTZA EUSKARAZ ETA GAZTELANIAZ, HAINBAT EUSKARRITARAKO.

- COPYWRITING DIGITALA.
- EDUKIEN MARKETINA.
- STORYTELLING-AK.



GUKA       ZERBITZUAK

PUBLIZITATEA

Kaithermik S.L.



Arotzeria metalikoa
Aluminiozko leihoak ZTHrekin,
PVCzkoak eta mistoak

Santiago auzoa, 20 Tel./faxa: 943-86 03 20

MAIAUR

ZUMAIA

Julio Beobide, 2 • Tel. 943 862 269  

CROISSANERIA



pizzak
hanburgesak
bokatak...

marina

Baltasar Etxabe, 2 Tel. 943-86 22 46

maximus PENCIL
estudio decoración



Julio Beobide, 2 - ZUMAIA
699 49 52 56
maximuspencil@gmail.com
Deitu edozertarako, aurretko hitzorduekin egiten dut lan



MENDI - ONDO S.L.
Elektrizitatea

Urola plaza, 21 tel. 943-86 00 74 - 943-86 15 69
mendi-ondo@mendi-ondo.com www.mendi-ondo.com

"Muagi"

errehabilitazioa
kirol medikuntza
fisioterapia

RPS: 034/97 Aita Mari, 3. blokea tel. 943-86 16 91



NOIA S.L.
TAILERRAK ETA
KARROZERIAK

**Etegabeko garabi zerbitzua 636 86 78 12 (Zumaia)
609 83 44 38 (Itziar-Deba)**

Hego kalea, B3 (Estazioan) 20750 - Zumaia
Tel.: 943-86 13 63
zumaia@carroceriasnoia.com

Itziar industriagunea, C
20820 - Itziar-Deba
Tel.: 943-60 62 91
noia@carroceriasnoia.com

www.carroceriasnoia.com



LIDEN
eraikuntzak eta arkitektura

bizkaia kalea 13, zarautz
678 875 652/ 943 905 983
lur@olidenreformas.com
www.olidenreformas.com



**Zoruen kutxilaketa eta bernizaketa
Parketa jartzea**

Estazioko kalea, 12 • tel. 943-86 14 12 • 686 36 41 49



OSTOLAZA

OSTOLAZA ZUMAIA S.L.
Joxe Mari Kortza Industriagunea, A1 - 4. pab. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel. 943-86 50 68 • Faxa 943-86 13 45
www.ostolaza.com • e-mail: osto@ostolaza.com

Ostolaza
altzariak

Tel/Fax: 943-86 13 25
Julio Beobide Ibitokia, 1 • 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
mueblesostolaza@euskalnet.net / www.mueblesostolaza.com



SOLOZABAL
autoeskolak

Etxezarreta, 19 • 943-861416
zumaia@solozabalautoeskolak.com

Bertako elikagaiak - Osteopatia - Psikologia zerbitzuak
Psikomotritateak - Naturopatia

www.sura.eus

Sura
ZAINZTA
OINARRIAN

Patxita Etxezarreta 17 - 688 71 85 38

talaraia
taberna • jatetxea



Santiago auzoa, 4 Tel. 943-14 33 70



Erribera kalea
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
tel. 943-86 19 73

TTAKUN TABERNA



Izustari, 3
tel. 943-86 52 89

TXIMISTA
garagardotegia

Ogitartekoak
Plater konbinatuak
Txerri-ukondoak (kodilloa)
Salbitzak, oilaskoak...
Garagardoak aukeran

Ondartza plaza, 4 beheko -tel. 943 573 905

AGENDA

ERAKUSKETAK

UZTAILAK 14-24

Maria Jose Balenciaga.

UZTAILAK 28 - ABUZTUAK 10

Txuri beltzeko Argazki lehiaketa.

ABUZTUAK 12-29

Motos Diaz.

UZTAILA

2 LARUNBATA

Buztintxuriko erraldoiak.
18:00etan.

Ikuskizuna: Mariachiak.
Odietan, 22:30ean.

3 IGANDEA

Artisau azoka.
Eusebio Gurrutxaga plazan,
11:00-14:00 eta 17:00-20:00.

Plaza dantzak eta gehiago.
Odietan, 19:30ean.

8-10

Egitasmoa: Elkano Itsas Herria.

Narrondoko jaiak.

8 OSTIRALA

Kontzertua: Beheko Plaza abesbatza.
Mari kalean, 20:00etan.

9 LARUNBATA

Kontzertua: Organoa, Flysch zikloa.
Parrokian, 20:30ean.

15 OSTIRALA

Eskuzko pilota partidua: Emakume
Master Cup.
Aitzurin, 21:30ean.

16 LARUNBATA

Kontzertua: Smile.
Portu Txikin, 20:30ean.

21 OSTEGUNA

Musika Hitzaldia.
Oxford aretoan, 19:00etan.

22 OSTIRALA

Dinastia Etxabe.
Aitzurin, 21:30ean.

23 LARUNBATA

Surf eguna: Reggae musika.
Itzurun hondartzan, 19:00etan.

24 IGANDEA

Dantza: Eva Guerrero, *LOF Ladies On Fight.*
Odietan, 20:00etan.

27 ASTEAZKENA

Musika jaialdiaren aurkezpena.
Mari kalean, 19:30ean.

29 OSTIRALA

Ikuskizuna: Musik udalekuetako
amaiera.
Zumaianen, 18:30ean.

UZTAILAK 30 - ABUZTUAK 7

Zumaiaiko Musika jaialdia.



UKENDU
PARABOTIKA
BELARDENDA
Aitziber Etxeberria Garro
Farmazialaria
Kantauri plaza, 2 943-86 09 92 www.ukendu.com



UZKUDUN
taberna
Eusebio Gurrutxaga plaza, 10 - 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel: 943-11 63 97



Amaia plaza, 13 tel. 943-86 23 85
www.xantialtzariak.com



yoana
ileapaindegia
Amaia plaza,
2 behea
943-14 32 78



Zalla
• plater konbinatuak
• ogitartekoak
• oilasko erreak
Urdela Plaza 3 • 943-86 23 87 ZUMAIA



ZUMAIA
AUTOESKOLA
Basadi, 12 / 943-86 10 18 / zumaiaautoeskola@hotmail.com

Gerratik ihesi, sanrokeak amets bihurtu zitzaizkien



SANROKEETARAKO, ETXEAN

Egilea: Adriano de Mata Aragoneses

Argitaratzailea: TXALAPARTA

Argitaratze urtea: 2021

Orrialdeak: 512

Generoa: Narrazioa



TESTUA: ANTTON PEÑALBA

Sanrokeetarako, etxean eleberria Adriano de Mata idazlearen lehenengo liburua da. Bilbon jaioa da De Mata, eta Itzulpengintza eta Interpretazioa ikasi zuen Gasteizen, Heidelbergean (Alemania) eta Bartzelonan. Gaur egun, Montrealen ari da postari lanetan, Quebecen.

Gerra guztiek gatazka politikoaren gainetik, hamaika istorio gordetzen dituzte bere barrenetan, eta horiei erreparatzea da gatazka humanizatzeko izan dezakegun tresnarik egokiena. Horixe egin du, hain zuzen ere, Adriano de Mata idazleak *Sanrokeetarako etxean* bere estreinako eleberrian; 1937an Gerra Zibiletik ihesi Erresuma Batura alde egindako ia 4.000 hurrek bizi izandakoa kontatzen digu liburuan.

Protagonistek, gaur egun 80 eta 90 urte izanagatik ere, oraindik negar egiten dute amaren malkoak gogoratzean. 800 lagunentzako lekua zeukan *Habana* lurruntziak, ia 4.000 ume eramán zituen Ingalaterrara 1937ko maiatzean

Santurtziko (Bizkaia) portutik. Hura izan zen ume haietako askorentzat gurasoak ikusi zituzten azkenengo aldia. Itsasontzi hartan izan zirenen bizipenak hartu ditu oinarritzat Adriano de Matak bere eleberrian.

Hiru haur dira istorioaren abiapuntua. Garaiko baikortasunaren ispilu, ume horiek uste dute hiru hilabeteen amaituko direla arazoak, eta etxean egongo direla sanrokeetarako. De Matak erbestera joandako ume horien munduaren ikuskera xalo eta inozentea erakutsi nahi izan du bere liburuan.

Autoreak berak erbesteratutako umeei egindako elkarrizketetan oinarrituta daude istorioetako asko. Dokumentazio lan sakona eskatu dio proiektuak, eta

ERBESTERATUTAKO UMEI EGINDAKO ELKARRIZKETETAN OINARRITU DA ISTORIA IDAZTEKO

Galesen eta Ingalaterran egin ditu elkarrizketa gehienak. Gainera, aipatu du informazioa eskuratzeko erraztasun gehiago izan dituela Erresuma Batuan Euskal Herrian baino.

Kontaketa egiteko euskara batua erabili badu ere, De Matak hautu kontzientea egin du elkarrizketetan pertsonaia bakoitzari bere hizkera propioa emateko, «1936ko gerran ez zegoelako euskara baturik» dio idazleak. Batzuek bizkaieraz egiten dute, eta besteek nafarreraz. Sasoi hartako hizkerak erabiltzeko lana egin du, toponimoen aldaera zaharrak mantenduz eta modan zeuden neologismoak sartuz.

Halako liburuek memoria historikoa egiten laguntzen dutela azpimarratu du Garazi Arrula Txalaparta argitaletxeko editoreak. Fusilamenduen eta errepresio fisikoaren aldean, askotan lantzen ez den memoria da erbestealdiena.

Gure herriaren historian gertatutako hainbat eta hainbat gertaera ahanzturatik ateratzeko balioko digu De Matak eskaintzen digun kronika nobelatu honek. ■

Ametsetan



IRATI OSA IRURETA

Gogoan dut orain dela 13 urte nire lehenengo urrezko domina irabazi nuen hura. Hasieran jolas hutsa zen kirola nire egunerokotasuna izatera iritsi da. 11 urte nituela hasi zen guztia, etxetik zetorkidan zaletasuna, eta pixkanaka denbora igaro ahala handituz eta ikasiz joan naiz.

Hasieran dena oso erraza zen, bidaia asko egiten genituen txapelketa batetik bestera eta helburu zehatzik gabe gero eta maila handiagoa izatera iritsi nintzen. Gero eta helburu zorrotzagoak jartzen nizkion nire buruari. Lehenengo nazioarteko txapelketan sailkatu nintzen, eta selekzioko entrenatzaileak aipatzen ziguten “lehenengo lauren artean geratzen bazara, goi mailako kirolari izendatuko zaituzte”. Hor konturatu nintzen, hainbat urtetako lana egin ostean hori zela nahi nuena, horrekin amesten nuen.

Lortu nuen. Banekien zer nahi nuen eta oso garbi neukan zer egin behar den bidean hori lortzeko. Egunerokotasuneko lanari ematen diot garrantzia, baita ahaleginari, pertseberantziari eta, batez ere, nahi izateari ere. Nire ustez, aurrena nahi izan behar da, eta nire kasuan, maila horretan egotearekin amesten nuen.

Ametsak buruan zeuden, eta gero eta handiagoa eta gero eta profesionalagoa bihurtzen hasi nintzen. Nahi gabeko bide bat izango balitz bezala. Egunetik egunera kalitate gehiago bilatzen nuen entrenamenduetan, atsedena, elikadura eta abar. Ametsetan

**NIRETZAT KIROLA
BIZITZEKO MODU BAT
DA, NAHIZ ETA GOI
MAILAKOA ZORROTZA
ETA GOGORRA IZAN**

jarraitzen nuen, aurretik zer zetorkidan imajinatu nahian.

Eta aldaketa bat zetorkidan, argi neukan kirolek bizitzea oso zaila izango zela, eta nire helburu nagusia unibertsitatera joatea zen. Kiroleko balioak nire ikasketekin paraleloan joan dira beti, esan dezaket kirolak erakutsi didana bizitzarako baliagarri egin zaidala. Nire berezitasun nagusietako bat hori dela esango nuke, goi mailako kirola ikasketekin uztartzea. Noski, ez da bide erraza izan, baina nire ametsak egia bihurtu dira eta orain badakit zer den munduko txapelketa batean domina irabazi eta horrekin oheratzea.

Niretzat kirola bizitzeko modu bat da, eta nahiz eta askotan goi mailako kirola zorrotza eta gogorra izan, berak dakarren exijentzia altuagatik, muturreko egoera askotan bizitzeko esperientzia eman dit. ■






**5 PERTSONA
BIZIPEN**

BIZI ITZAZU!



Reading



JUAN LUIS ROMATET

Nik Readingera joan nahi nuen, jakin gabe non demontre zegoen ere. Garaiak desberdinak ziren: Google Mapsek ez zuten oraindik existitzen, eta etxean genuen atlas zaharrear ez zen azaldu ere egiten; nik ez nuen aurkitzen, behintzat. Baina joan nahi nuen, han egon nahi nuen, Readingen.

Rockdelux aldizkariaren erosle sutsua nintzen, urte edo hamarkada batzuk geroago sutsu izateari utzi, eta handik denbora batera eroslea izateari ere utzi nion arte. Baina garai batean, aspaldi, gaur egun ditudan lankide batzuk oraindik jaio ere egin ez zirenean, aldizkaria aurretik atzera, atzetik aurrera irakurtzen nuen, eta erosi BEHAR nituen diskoen zerrendak egiten nituen. Hau da, aldizkarian agertzen ziren %90 inguru. Noski, gehienez hilean pare bat disko erosteko dirua izango nuen garai hartan, eta nire usteak sortu bezain pronto usteltzen ziren.

Uda garaiko zenbakietan hemendik kanpo izaten ziren jaialdien berri ere ematen zuen aldizkariak. Hemen kasik ez zegoen musika festivalik, baina bai Erresuma Batuan. Glastonbury, Reading, festival kopuru handia zuten han goian, eta jaialdi horietako programazioa ikusita hemengo hau lerdea dariola egoten zen lagunei-eta esaten hara joan behar genuela, jakinda, ondo jakinda, aukera minimorik ere ez genuela.

Denborarekin joan naiz festibaletara. Errioxan egiten zen Serie Bra, Badalonan egin zuten El Pop Festivalera, hemen ingurukoetara, baina baita Benicassimekora, inoizko programazio onenetakoa izan zuenean. 25 bat urte pasatu dira ordutik eta oraindik ere gogoan ditut han entzundako taldeak, baita hauek ere: egiten zuen beroa, kanpinero baldintza itogarriak, izan nuen intsolazioa (konortea galdu eta kanpinera eraman ninduten) eta ezpainetako herpesarekin eta hankak puztu-puztu eginda bueltatu nintzela. Behin joan naiz eta James Bonden esaldiari jaramonik egin gabe –"inoiz ez esan inoiz"–, ez naiz bueltatuko.

Denborarekin festibaletara joateko gogo guztiak joan zaizkit; akaso musika jaialdi txikiak joango naiz, Andoainen antolatzen dutena kasu, baina inola ere ez dozenaka mila pertsona biltzen dituzten horietara. Ez daukat adinik, ezta gogorik ere hala ibiltzeko, eta nahiago, askoz nahiago, kontzertuak aretoetan entzun, tabernako barra metro gutxira duzunean (azken Primavera Sounden, Bartzelonan, zerbeza bat erosteko, garesti gainera, ordu erdi eta ordubete arteko ilarak egin behar izan zituztela jakitean festival horretara joateko gogo are eta gehiago baretu zen, munduko programaziorik onena izanda ere).

Nik Readingera joan nahi nuen, han egon nahi nuen. A zer mozoloa nintzen! ■■■

NIK READINGERA JOAN NAHI NUEN, JAKIN GABE NON DEMONTRE ZEGOEN ERE; BAINA JOAN NAHI NUEN

BRADERIE

Dendak kalean

ZUMAIA
UZTAILAK 23

Egun osoan zehar musika,
denda postuak, eta giro aparta!

300€

zozketatuko dira erosketa baleetan



BALEIKE.EUS/GIDA

Topatu behar duzuna: herriko dendak, tabernak, tailerrak eta bestelako zerbitzuak.



ETA ZUK,
ZER AURKITU
NAHI DUZU?

ferreteria Galdona S.A.



burdindegia



Industriarako era guztietako
material, tresna, pieza, eta osagarriak.



**JOSE MARI KORTA INDUSTRIGUNEA · Pab. A6.1, 2-5 mod.
Tel.: 943 86 11 17**



egutera

ZUMAIAKO ENERGIA KOOPERATIBA

**Egotetik
egiterra goaz.**
Zumaian bertan
eguzki energia
sortuko dugu.

Eman izena
orain, eta
bazkide egiteko
lehentasuna
izango duzu



labur.eus/egutera
Eman izena inolako
konpromisorik gabe



Zumaiako
Udala



ZUMAIA
BIZITZEKO
DA

GERTU
ZUMAIAKO MERKATARI & OSTALARI EKARTEA



zumaiena